

Itsasoan urak handi dire

Julen LEKUONA

SARRERA

2003ko uztailaren 19an utzi gintuen Julen Lekuonak. Euskal kulturari zuzenean loturik zegoen gizona genuen Julen, bereziki kantagintzari eta honenbestez, ezin dugu gure euskal musika garaikidea ulertu, beste hainbaten antzera, bere ekarpenean paradatxo bat egin ezean.

Hasieratik bukaeraraino KANTAUTOREA izan zen Julen Lekuona. Bere kantautoretzak iturri bat baino gehiago izan zituen: Oiartzunen 1938an jaioa, familiaren aldetik, kantu tradizio aberatsaren ondarea eskuratu zuen; bestetik musika heziketa oparoa ere jasotzeko aukera izan zuen, hala nola, seminarioko armonia ikasketak, edo egindako gregoriano ikastaroetan.

Beste iturri garrantzitsu bat hirurogeiko hamarkadako kantautore erlijiozkoen bideetatik dator, hala nola "Aita Duval" eta "Soeur Sourire", ez baitugu ahaztu behar Julenen ibilbide artistikoaren hasieran zegoen berezitasun bat: Julen apaiza izan zen Aizpurutxo izeneko Azkoitiko auzo txiki batean. Egun, bertan "Don Julian" erretorea bezala gogoratzen dute maitekor.

Bere lehenengo kantua Hernanin fusilatu zuten osaba Martin-ondu omen zion 1963an. Hortik aurrera Julenek kantautoretzari ekin zion, herriz herri kantaldiak eskainiz, garaiko elizako zein lurraldeko gobernuaeren hitzetan "apaiz batentzako batere egokiak ez diren aldarrikapenak eginez". Caracasen bi diska argitaratu zizkioten 1965 eta 1966an.

1965. urtean "Ez dok Amairu" izeneko taldea sortu zen, tradizioa eta abangoardia lotuko zituen euskal artearen kontzeptu berri bat sortzeko asmoz; hantxe genuen Julen. Beranduago, Xabier Lete eta Antton Valverderekin "Bertsu Zaharrak" proiektuan parte hartu zuen Bilintx, Txirrita eta Xenpelarren bertsoei musika erantsiz. 1981ean, Iparragirre hil zeneko mendeurrena ospatzen zela eta, "Gitarra zahartxo bat" antzezlan musikalean artista ezagunaren pape-
ra egin zuen Intxixu antzerki taldearekin.

Isilaldi luze baten ondoren, nahiz eta kantu sormenari ez zion inoiz ere utzi, 1999an "Hautsi ez dadin katea" bildumarekin itzuli zen Julen; aldi hartan orain bezala Egan-en eskutik. Ondoren Oiartzungo Pagoarte elkartean kantaldi bat eskaini zuen.

Julenen heriotzak bere sormen artistikoaren inguruko galdera asko utzi zizkigun buruan, berak erantzungo ez dizkigun galderak... Bere paperen artean murgiltzen hasi ginelarik, kantu ugari biltzea lortu genuen; ezagunak batzuk, ezezagunak besteak. Hauxe da bil-duma honen izatearen arrazoi hain zuzen, abesti guztiak dokumen-tu batean jasotzearena. Hauxe dugu Julen Lekuonak utzitako onda-
rea.

Lekuona-Rekalde-tar sendia

ALARGUN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: 2001

12
EZ DA U KAT GOR DE A O SO ZAI

18
LA ZI TZAI EN NE RI E SA TE A

24
NI RE SE NA RRA NU EN BA KA RRA HI LA ZE

30
NA REN AL BIS TE A

1. KANTA DEZAGUN DIMITOK
hau da egun alai
Jesus jaio da eta
kanta: Aieluak

2. POZTU, ANTSI
Poztu, zeru lurak
Poztu, elak,
Poztu, herriak

3. KANTA DEZAGUN DIMITOK
hau da egun alai
Jesus jaio da eta
kanta: Aieluak

4. POZTU, FAMILIA
Poztu, garasak,
Poztu, iriak,
Poztu, hidalgoak

1. Arratsalde erdian
etxeke atea,
nor zen mezularia
ez daukat gordea.
Oso zaila zitzaien
neri esatea:
nire senarra
nuen bakarra
hila zenaren
albiste.
2. Etzen galdu uretan
zendu zen istripuz,
geroztik doloretan
malcoetan urtuz.
Itxaropen dorrea
denborak apurtuz
joan zitzaidan
urteen maldan
errekan behera
hegaldatuz.
3. Garai batez eguzki
argitan etzan,
alai ginaden bizi
soaz elkarrengana.
Atsegin dotoretan
besarkatzen dana.
Orain bakarrik
aurki ez nahirik
bihotza doa
zuregana.

OSTA ALELUIA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Urtea: 1966

KAN TA DE ZA GUN DA NOK HAU DAE GUN A LA IA A
 JE SUS JA IO DA E TA KAN TA A LE LU IA KAN TA DE ZA GUN DA NOK HAU
 DAE GUN A LA IA A JE SUS JA IO DA E TA KAN TA A LE LU IA POZ TUAIN GE
 RU A POZ TU ZE RU LU RRA AK POZ TU E LI ZA POZ TU HE RRI TA
 RRAK

- | | |
|--|---|
| <p>1. KANTA DEZAGUN DANOK
 hau da egun alaia
 Jesus jaio da eta
 kanta: Aleluia!</p> | <p>2. POZTU, AINGERU,
 Poztu zero lurra,
 Poztu eliza,
 Poztu, herritarrak.</p> |
| <p>3. KANTA DEZAGUN DANOK
 hau da egun alaia
 Jesus jaio da eta
 kanta: Aleluia!</p> | <p>4. POZTU, FAMILI,
 Poztu, gurasoak,
 Poztu biziak,
 Poztu, hildakoak.</p> |

AMERIKETAN ARTZAI

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna

A ME RI KE TAN AR TZAI NE

VA DA PAR TE AN TXA KUR LA GUN BA

KA RRA DUT AL DA ME NE AN MI

LA KA AR DI ZU RI NE RE BA BE SE

AN KA RRO KAN PO TIK ZA IN TZEN

DI TUT A RRA TSE AN

1. Ameriketan artzai Nevada partean txakur lagun bakarra dut aldamenean.
2. Milaka ardi zuri nere babesean karro kanpotik zaintzen ditut arratsean.

AMODIO GAJETAN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: 2001

A MO DI O GAI E TAN O HI

TU A I ZA NAK A MO RO SA BI HUR

TZEN HE RRI KO E SA NAK A MO

RANT LE IHO E TAN DIR DIR KA I ZA

RRAK UR DU RI A SEN TI TZEN IN BI

RI TAN DA NAK A BI AN JAR TZEN DI

RA A TSO ZA HA RREN MAI NAK

1. Amodio gaietan
ohitua izanak
amorosa bihurtzen
herriko esanak.
Amorant leihoetan
dirdirka izarrak.
Urduria sentitzen
inbiritan danak
abian jartzen dira
atso zaharren mainak.

2. Zeruetan ez dabil
inor agerian.
Azpijanak aurkitzen
dira lur-azpian.
Nori zailo inporta
gizarte garbian:
zer jolas dezan egin
nork bere kabian,
maitasunez egiten
duen ohi zurian.

3. Makina bat erreka
ditu maitatzeak.
Mila oztopo jarri
dizkigu legeak.
Kasu handirik ez du
egiten jendeak
senaren eskuetan
daude maitatzeak,
amoros bekatuak
dituen xedeak.

4. Bere ordularian
ez da eguzkirik.
Maitalezko argiak
ditu ipinirik.
Tximistaren keinua
maiteak sorturik,
bakardadea urrun
nahi du bihotzetik,
gauaren sabeleko
zabor ilunetik.

5. Norbait ere espantuz
ba da ikaritzen,
pekaturik gabea
has bedi jaurtitzen
harrizarrak lehiora,
diren konbertitzen,
baina kasu eginik,
direnez jauritzen
ez bezaizu itzuleran
parean aurkitzen.

ANAIA JUAN MARI

Hitzak: Julen Lekuona*
Urtea: 2003

- | | |
|--|---|
| <p>1. Klabelinarenak dira,
klabelinarenak.
Lore zuri politenak,
klabelinarenak.
Berrogeitamar urteko
fruitu ederrenak,
egun batean denentzat
zabaltzen direnak.
Denboraren garailea
aukera hautenak.</p> | <p>2. Gure anaiaren hitzak,
gure anaiarenak.
Olerkietako giltzak
gure anaiarenak.
Ausardiaren beldurra
hautsia duenak,
hartutzen ditu menpean
mendi goi gailenak,
sentipenen baitan diren
izar garaienak.</p> |
| <p>3. Gorostiarenak dira,
gorostiarenak,
arantzik zorrotzenak,
gorostiarenak.
Mendi goi bizkarretako
arrano gorenak,
bere izpiritu-giltzez
pizturik barrenak.
Maitale egin hintuen
izadiarenak.</p> | <p>4. Alelulia esan dezadan,
berriz alelulia.
Gure kantetan dezagun,
beti alelulia.
Apaizgintza egaletan
egin duk bidaia,
lau haizetara hegatzuz
Jaunaren kanpaia.
Bezaik berak lagundu
Juan Mari anaia.</p> |

* Kantu honen doinua ezezaguna da

ARITZ

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: 2001

HA MAI KA MI LA MA RRU BI ZE RU AN

ZIN TZI LIK JA RRI AR GI TA SU NEZ KO E GUZ KI

LI BRE KO I RU DI EN GO ZA GA RRI EZ DI RA

AZ KAR E TO RRI BI LA ZE BI LEN AS PAL

DI BI HOTZ GAN BA RA KO U RRE KO LO REZ KO A METS GUZ

TI EN GEHI GA RRI

1. Hamaika mila marrubi
zeruan zintzilik jarri.
Argitasunezko
eguzki libreko
irudien gozagarri.
Ez dira azkar etorri,
bila zebilen aspaldi,
bihotz ganbarako
urre kolorezko
amets guztien gehigarri.
2. Eginak ditu bilatzen.
Lanak ez du ikaratzen.
Maite eskeintzetan
diharduenetan
xedeak ondo miatzen.
Askorekin zen elkartzen,
bihotzera begiratzen.
Baina gau festetan,
lagun elkartetan
etzizaloz ateratzen.
3. Egun batez azkenean
izarren dizdirapean.
Argi txinta batez,
begi ñabardurez
kolpaturik bihotzean
ez du ez eguzkipean
maitearen bazterrean
ez izarren hautsez
ez krabelin lorez
haren parerik lurrean.
4. Etorkizunez ardura
ametsetako mentura
eguzki berria
lanez ekarria
sartua dauka barrura.
Izarretako zerua
begiratuaz gustura,
sasi eguzkia
gauzez etorria
bertan ez den, du itxura.
5. Inor ez gera harritzen,
bihotza zaigu beritzen,
bizitzaren hautsak
dakarren geruzak
hari bai gera sentitzen.
Errez zaigu nabaritzen
gogoz bait dugu bizitzen
gaztedi arnasak
bizi esperantzak
loturak ditu hautsitzen.

ARRIDURA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna

A RRI DU RA RIK SOR TU KO BA LU GU RE AR TE AN ME ZU AK

ES KU BI DE AK LI TEZ KE ZAIN DU AUS NAR TZE DI GU BU RU AK

BI DE ZI DO RRAK E ZAR TZEN BAIT DU NUN E RA BI LI ES KU AK

NO LA AU KE RA NO LA AS TIN DU GU RE A PUS TU ES TU AK E ZER E ZE AN

E ZIN A MIL DU ZEN TZU A REN A HOL KU AK




Arridurarik sortuko balu
gure artean mezuak
eskubideak litezke zaindu
ausnartzen digu buruak.

Bide zidorrak ezartzen bait du
nun erabili eskuak
nola aukera, nola astindu
gure apustu estuak
ezerezean ezin amildu
zentzuaren aholkuak.

ASKATASUNA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: 2001








1. Askatasunaren esperoan beti galdezka sarritan zuenez merezi herriko jendeak beldur ginen, noski. Hitzaren zentzua ziguten ebatsi. Legedi arrotza genduen nagusi.
2. Askatasunaren zai ginaden gero, gure gaztaroan odol, bizi, ero. Itxaropeneko ametsetan bero. Askatasun hitza galdetuz gero zigor mehatxua gendun eguneru.
3. Askatasunaren esan nahi umila, galdera kantuz hari ginen bila bihotzetik gure otoitz biribila bizkar gainetikan aldendu zedila mehatxularien esaro makila.
4. Askatasunaren garraxi ozena bihotz barruan du oihartzun zuzena azkar suspertuz hilik bizi dena bere babespean sufritzen duena esperantzaz bete preso dagoena.
5. Askatasunaren jiran hainbat urtez, gure estalpera erakar ezinez. Politikariak esku bete hitzez, burua berotu digute ametsez eta azkenean askatasunik ez.
6. Askatasunaren argirik ote den, gure zahartzaroan ez dugu jakinen. Biloben bilobak ba litezke hemen, ba dakit seguru zer lukete esanen askatasun txintik ez dugu aurkitzen.

ATEZ ATE ESKEAN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna



Atez ate eskean
maitasun beharrez
istoriak zituen
kontatzen ordainez.

Su epelaren jiran
magikotasunez
izpiritu guztiak
guregan sartuez
aho zabalik ginen
egoten beldurrez.

ATSOTITZAK

Hitzak: Julen Lekuona*
Urtea: 1998

- | | | |
|---|---|---|
| <p>1. Atsotitzak
Zatorgintzak
Jakiturien
Baldintzak
Nabar-nabar
Ixil-ixila
Barruen
Joku habila
Eutsi!
Bizi garenok
Arazo
Sentipenekin
Akaso.
Inor gutxi
Inporta
Geure jokoa da eta!
Geure jokoa da eta!</p> | <p>2. Beti tiro
Baina astiro
Ehizean
Ez dago giro
Nor espanta
Nor da haserre
Inor mintzeko
Ez gaude
Kontuz!
Baldin bada
Edo ez.
Nola gainditu
Errez.
Denek ados,
Denek bat.
Aulkia ez dezagun gal.
Aulkia ez dezagun gal.</p> | |
| <p>3. Botuekin
Gabilta fin.
Malko denekin
Ez jakin
Sortu behar
Loteria
Ospatutzeko
Berria.
Topal
Txanpanez
Dezagun busti
Irabazleek
Nagusi.
Zakur zaharraren
Antzera
Herriak gaitu aukera
Herriak gaitu aukera.</p> | <p>4. Santo Kristo
Lehenbiziko
Utsean
Ez dut utziko,
Maitasun
Hegalean.
Zortziko
Zaharren antzean.
Gera!
Praktikaren
Atalean
Denak ditugu
Mendean.
Ilunpearen
Argitan
Hontzen ulua elizan
Hontzen ulua elizan.</p> | <p>5. Marmarka
Doan erreka,
Pake santuan
Oreka
Argitu
Gure begia.
Hau ahal da
Gure egia?
Utik!
Ezin izan
Gara zale.
Jainkoak
Bezalgu gorde
Tentazio honetatik
Sekulorum sekulotik
Sekulorum sekulotik</p> |

* Kantu honen doinua ezezaguna da

AZOKATIK AZOKARA

Hitzak eta doinuak: Julen Lekuona Urtea: 1998

A ZO KA TIK A ZO KA RA DI RU A A METS BA

KA RRA TRON PE TA JO LE A TRU FA TZE KO TRON PA

TZE KO DI RU TAN EZ NAIZ A SE KO BO RO BIL BE TE AN

MAI RU TAI RU SOR TU ZAI GU HA MA BI TI KAN HA MAI RU A TE RA

TZE KO TSA GUZ TIEN UR GAZ LE BEHIN E ROS TUN

BEHIN SAL TZAI LE A BE RAS TE KO E RAUR DI NA SA RI

1. Azokatik azokara,
dirua, amets bakarra,
tronpetajolea;
trufatzeko, tronpatzeko
dirutan ez naiz
aseko
borobil betean.
Mairu tairu
sortu zaigu
hamabitikan
hamairu
ateratzeko grina.
Burtsa guztien
urgazle;
behin erostun,
behin saltzaille
aberasteko
era urdina
sariko
hariko
naiz bila.
2. Euroaren
erotikan
sendatzalleak
botikan
aurkitu
ohi dira.
Kazetari
mandatari
utsean dituk
ezarri
irabazbideak.
New Yorketik,
Parisetik
haizearen
hegaletik
zanpantzar
dunbada.
Ilunetan
galeretan
lorik ezin dut
gauetan
ximurtu
sakela
Jainkoak
anpara
nazala.
3. Harrobian
lurrazpian
altxorrak
ditut kabian
uztaonaren zai.
Bor-borrear
dagonean
jarriko ditut
eltzean
nere izerdiak.
Ba ote da,
ez ote da,
egin behar dut
aukera
zalantza
betean.
Irabazi
alaietan
bustiko naiz
txanpainetan
nere helburua
zanpatu
dezadan mundua.
4. Epelean gaudenean
barru guztiak pakean
suaren guardian.
Kantatzea, jolastea,
lagun arteko pakea
bilatutzen dugu.
Diruaren estresaren mendean
bizi diranek
bihotzeko abisua.
Pakearen munduaren
erostunikan
ez duen baitan
gure altxorra
burtsa doala
pikutara.

AZPILDURAK

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Urtea: 1998

AZ PIL DU RAK ES TAL TZEN DI TU GU RE

BI ZI TZAN SO BE RA GUZ TI AK TREN BI DE GA RAI LA SA I DA

RA MAN BI HO TZAK EZ DE ZA LA HAUR BE ZA LA HUTS E GIN

SO LAS KI DE ZA REN A NA IA EZ SI

NE TSI E SAN DA KO GUZ TI A NOIZ BAIT BE RRIZ JA

I O KO DA ZEN TZU A


20

- | | |
|--|---|
| <p>1. Azpildurak
estaltzen ditu
gure bizitzan
sobera guztiak.
Trenbide garai lasai
daraman bihotzak
ez dezala
haur bezala
huts egin.</p> | <p>2. Solaskide
zaren anaia,
ez sinetsi
esandako guztia.
Noizbait,
berriz,
jaioko da zentzua
sortuko benetan egia.</p> |
| <p>3. Egun on! Laguna
ongi etorri
bizitza berriak
zaitu ekarri.
Karnabal honetan
zaituzte jarri,
aribari munstroen
taulan ezarri.</p> | <p>4. Itxaropen
beltzaren truke
nunbait ote
dagoen eguzkia.
Balantz,
sarri,
pailazoen papera
norabide gabeko dantza.</p> |
| <p>5. Arrotz triste
ispiluetan,
malda gorako
gurutze astuna.
Inoren baitan
sortzen ba da
logalea.
Izan bedi,
bihotz argi,
nork esna.</p> | <p>6. Erensugetan
mutur berdeak
nundikan
sartuko bere pozoina.
Ihes
egin
ote da erantzuna
ilea desorraztu gabe.</p> |
| <p>7. Bizitzaren eztul
paregabekoa,
jario gorria
duen lorea
karrozeri zaharren
berpizkundera.
Berritu beharrak
duen xedea.</p> | <p>8. Eta hola
nork konprenit
bizitzak esan
nahi digun guztia.
Neri
behintzat
ez dagokit
zer esan.
Bakoitza bakoitza
da lur hontan.</p> |

BARATZETAKO MINTZOA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona


Urtea: 1993



BA RA TZE TA KO MIN TZO A A RRO SA DI AN MO RE LA RRE




AN JA IO TA KO A E RRE GI NE TAN LO RE ZU RE LU RRI NA REN




PRIN TZAK E MA NI KAN A DO RE DI TU DAN MAI TA SUN HI TZAK ZU RE



TZA KO DI RA DE MEN DI AN NU EN MAI TE A NI RE LO RE BA SA TI MAI TE



MI NA REN KA TE AK GOR PUTZ ZU TEN E HOR TZI MAI TE MI NA REN KA



TE AK GOR PUTZ ZU TEN E HOR TZI

3. Etziren lagunak

Joxien bezperetan
amaren jardunak
ekarzen da gogoceta
Etziren lehen eguzia
geratzen zitzaiguna
piper egri gerduna
Sanstebanetan.

4. Gerduen ordain

benetan jainko beher
nehiz izan zenuen
karioioka bete izan
Guse amak nafi zuzo
aninak seguzan
jainkoaren eskutik
gintzelaz izan

5. Beizeretakak

ez du itzaro argi
kain argiak
Jaiak berriak dituztuz
gure abenturakak,
or duen jaiakak
bestako beizerakak
parkerakak guri

1. Barazetako mintzoa
arrosadian more
larrean jaiotakoa
erreginetan lore.
Zure lurrinaren printzak
emanikan adore
ditudan maitasun hitzak
zuretzako dirade.

Mendian nuen maitea
nire lore basati
maiteminaren kateak
gorputz zuten ehortzi.

2. Lore urdin, lore argi
larrartean jantzia,
arantzartean biluzik
zure dotorezia.
Zure ametsen girizi
izanik izadia,
izarretatik iritxi
zaizu udaberria.

Neretzat itxaropenik
bizi dudan moduan,
ez daukat beste etxerik
maite zure altzoan.

3. Itsasoko hodei gorri
ilargitik zintzilik
maitasunaren mirari
nere baitan bizirik.
Ilun eltzean sorkari
zure besoetatik
naukazu kanta kantari
eguzki errainutik.

Maitasunaren landare
lore maitearekin
zorianaren zutabe
bara zaitez gurekin.

BEZPERETAN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: 2001

DAN BA KA KAN PAI A E LI ZA KO DO RRE A

BA DA TOR AR TZA IA HAS GAI TE ZEN O TOI TZE AN GA UR KO E GUN

SEN TI A DA TO RREN E GUZ KI A I ZAN BE DI AR GI A

GU RE EL KAR LA NEAN

1. Danbaka kanpala
elizako dorrean
ba dator artzala
has gaitezen otoltzean.
Gaurko egun sentia,
datorren eguzkia,
izan bedi argia
gure elkarlanean.

2. Bezperak kantatzen
gure herriko festetan.
Lau katu abesten
apaizaren esanetan.
Barrutik zen entzuten
barraka hotsa ozen
zer genduen galdutzen
eliz ilunpean.



3. Etziren lagunak
joaten bezperetan
amaren jardunak
ekartzen dit gogoeta.
Etzen lehen eguna
gertatzen zitzaiguna
piper egin genduna
Sanistebanetan.

4. Genduen orduan
benetan jainko bakar
nahiz izan zeruan
kamioika bete izar.
Gure amak nahi zuan
animak seguruan
Jainkoaren eskuan
gintezela izan.

5. Bezperetakuak
ez ditut oso argi
latin errezuak
Jainkoarentzat otoltz bi
guk abestutakuak
ote zuan Jainkuak
festako bekatuak
barkatzeko aski.

DIN DAN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Urtea: Ezezaguna



- | | |
|---|--|
| <p>1. Tan tiki tan
kanpai hotsetan
eliz dorretako erlojuetan
usoetan eraginetan
hasten dira kolpez hegaldietan.</p> | <p>2. Tran trapa tran
danborradetan
murgiltzen gaituzte herri festean
soinuetan, zalapartetan
burrunbadak sortzen belarrietan.</p> |
|---|--|

ELIZA POBREA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna

E LI ZA PO BRE A E LI ZA
 PO BRE A DA NON TZAT HO BE A MOZ TU KAR
 DE NA LEN HA RRO PAK MOZ TU DO RRE LU ZE ZO RRO
 TZAK MOZ TU O BIS PO KO TXE LU ZE AK

- | | |
|---|--|
| <p>1. Eliza pobrea, eliza pobrea
danontzat hobea.
Moztu kardenalen harropak
moztu dorre luze zorrotzak
moztu obispo kotxe luzeak.</p> | <p>2. Eliza pobrea, eliza pobrea
danontzat hobea.
Kendu urre eta bitxiak
kendu kristau diferentziak
kendu ministro diruzaleak.</p> |
| <p>3. Eliza pobrea, eliza pobrea
danontzat hobea.
Nun da estalpean jaioa
nun da gurutzerera igoa
nun da Nazaretoko langilea.</p> | <p>4. Eliza pobrea, eliza pobrea
danontzat hobea.
Ager aski da Jaungoikoa
ager berarekin nahikoa
ager eliz zahar begi jatorra.</p> |

Eliza pobrea, eliza pobrea
danontzat hobea.

ERREGE BALTAXARREN BALADA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Urtea: 1964

AU ZO KO JO SE BA U ME BE GI ZU RI

E RRE GE BEL TZA AU RRE AN

AI ZA ZU BAL TA XAR AS KO DE ZA KE ZU A MAK E SAN DIT

GOI ZE AN JOS TAI LUZ TA GO XOZ

AS PER TU RIK NA GO TAE KA RRI NE RI GA UE AN

AS PAL DI TIK NA GO PEN TSA MEN DU GO XOZ

AN DRE GAI BA TEN NAHI E AN

1. Auzoko Joseba, ume begi xuri,
errege beltza aurrean:
-Aizazu Baltaxar, asko dezakezu,
amak esan dit goizean.
Jostailuz ta goxoz asperturik nago
ta ekarri neri gauean,
aspalditik nago pentsamendu goxoz,
andregai baten nahiean.

- 2 Baltaxarrek berriz, oso harriturik
horrela dio Josebari:
-Aizak hi Joseba, ez nazak faborez
estuasunean jarri.
Inor izan baitz, beteko nikek nik,
bihotzez hire nahi hori.
Gauza hoiek ordea, handienak dituk,
konprenitzen saia hadi.

3. -Orduan zergatik esan zaudela zu
dana ahalmenez beterik.
Demostratu ezazu hemen nere aurrean
hor ez dagola gezurrik.
Bestela ez pentsa nahiz zu handia izan
engainatuko nauzunik.
Esanak bakarrik ez baitu egiten
arrazoiaren itzalik.

4. Errege Baltaxar goibel jarri da ta
gelditu zaigu ixilik,
pentsatuz ez duela Joseba gazteak
inondikan arrazoirik.
Ta Josebak ez du berriz adituko
Baltaxarren erantzunik,
sekulan ez baitu arrazoiak izan
bihozkadaren indarririk.

EUSKAL EMIGRANTEEN ABESTIA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna

E US KAL JEN DE JEN DEOK HAR TU DE GU A SA BA ZAHA
 RREN AR GI A TAI ZA RREZ PIZ TU EUS KAL HE RRI KO ZE RU GUZ TI A
 GO RA BE GI RA TUZ OR DE A DA KUST GA UZ NE GAR
 GA RRI AK HE MEN EZ DI RAN EUS KAL DU NEN
 HI TZAL ZA TI AK

1. Euskal jendeok hartu degu asaba zaharren argia ta izarrez piztu Euskal Herriko zeru gutzia.
2. Gora begiratzuz ordea dakust gauz negargarriak hemen ez diran euskaldunen itzal zatiak.
3. Batzuek gerrak aldenduak besteak bizi beharrak horrela banatuak dira gure indarrak.
4. Zatozte berriz gure ondora ta piztu zuen izarrak indar berriz pizkortutzeko gure hezur zaharrak.

GABONETAKO FESTETAN

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Urtea: Ezezaguna

GA BO NE TA KO FES TE TAN GU RE HE

6 RRIA A ZAL TZEN DA BAZ TE RRE TAN POZ HAN DI

12 A EL KA RRE KIN KAN TA RI SEN DI GUZ TI

18 A OS PA TZEN DU GU GA BON A FA RI

24 A

1. Gabonetako festetan gure herria
azaltzen da bazterretan poz handia
elkarrekin kantari sendi guztia
ospatzen dugu gabon afaria.
2. Olentzero zaharrak zekarren berri
menditik korrika zitzaigun etorri
bihotz guztietara ozen kantari
Belenen zela Jesus jaio berri.

GAZTE LOREA

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona
Urtea: 1998

GAZ TE LO RE A ZU RI ZU RI PAN

POX ZU RE I RU DI A BE GI GAZ TAIN KO LO

RE KO DIR DIR I LE HO RI A AUR

PE GI LER DEN XAR MAN TE AN NA BAR A HO GO RRI

A BI HO TZA ES NA TU DA TA

JA IO ZAI ZU BI ZI A

1. Gazte lorea zuri zuri
panpox zure irudia.
Begi gaztain koloreko
dir-dir ile horia
aurpegi lerdan xarmantean
nabar aho gorria.
Bihotza esnatu da ta
jalo zaizu bizia.
2. Arrosa lirainen pareko
zure lagunengatik atsegin.
Aingeru guztien testigu
baratzetako klabelin.
Mutilak zure inguruan
egin zaituzte erregin.
Zuk bat bakarrik nahi, ordea,
ez dakizu zer egin
3. Bizitza luzea da eta
presarikan etzazu har.
zure maileta nunbaitikan
etorriko da bihar.
Maitasunaren azalean
koloreak txuri nabar
dasta zazu mamia eta
izango zara izar.